

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Arrunta.

Data: 2014-11-17 (astelehena)

Ordua: arratsaldeko 19:00tan

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Erreferentzia: O-14-02

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko azaroaren 14a
Idazkari-kontuhartzailea

EGUNEKO GAI ZERRENDA

- 1.-Azkeneko Udal Osoko Bilkuraren akta onarpena zuzen irizten bada. -E-14-05 (2014-10-03).
- 2.-Azkeneko Udal Osoko Bilkuratik aurrera Alkatetzak eman dituen Dekretuen berri ematea.
- 3.- Ezkio-Itsasoko "Herri Eskola Txikia" proiektua onartu eta esleitzeko ekonomiko-administratiboen baldintza plegua onartzea.
- 4.- 1 zenbakidun Kreditu Aldaketa Espedientea onartzea.
- 5.- 2015 urterako zabor bilketa zerbitzuari dagokion Udal Ordenantza fiskalaren aldaketa hasierako izaeraz onartzea.
- 6.- Azaroaren 25ean "Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna" dela eta, Adierazpen Instituzionala onartzea.
- 7.- Igartzola parajeen egiten ari den betelanaren egoera.
- 8.- Erregu eta galderak.

.....//.....

0-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

2014KO AZAROAREN 17KO UDAL OSOKO BILKURA ARRUNTA

Ezkio-Itsason, bi mila hamalauko azaroaren hamazazpian.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zuzenetik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK)
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiákez (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Ruth Idiákez Alberdi (EIK)

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//.....

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//.....

2-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

LEHEN PUNTUA:

AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTAREN ONARPENA ZUZEN IRIZTEN BADA. E-14-05 (2014-10-03).

Ikusirik Udalkide guztiei bidali zaiela aipatuko den Udal Osoko Bilkurari dagokion akta-minuta, Udal Osoko Bilkurak, aho batez

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Aurkeztu den eran onartzea honako akta minuta: -E-14-05 (2014-10-03).

BIGARREN PUNTUA:

AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURATIK AURRERA ALKATETZAK EMAN DITUEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamenduko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkuratik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-14-190/R-14-208 (zerrenda osoa aurkezten da).

HIRUGARREN PUNTUA:

EZKIO-ITSASOKO "HERRI ESKOLA TXIKIA" PROIEKTUA ONARTU ETA ESLEITZEKO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA.

IKUSIRIK:

Herri Eskola 2014-2015 ikasturtean abian jarri nahi dela, "Herri Eskolako Proiektuko 1º Fasearen Obrak" esleitzeko proiektua Gaizka Perosterena Arregi arkitektoari esleitu zitzaiola eta dagoeneko erredaktatu duela.

Prestatuta dagoela, obrak esleitzeko ekonomiko-administratiboen baldintza plegua.

KONTUAN HARTUTA:

Prestatutako pleguak, besteak beste, ezaugarri hauek dituela:

.....//.....

3-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

- Kontratuaren xedea: "Herri Eskola proiektuko 1º fasearen exekuzio obrak.
- Exekuzio epea: 22 aste, birplanteo konprobazio agiria sinatzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- Litzitazioarako oinarritzko prezioa: 598.655,70 euro (BEZ barne).
- Tramitazio mota: Irekia eta premiazkoa; premiazko tramitazioa egiten da nahitaez zeren eta obrak 2014-2015 ikasturtean amaituta egon behar dira, eta gainera diru laguntza batzuen epeei lotuta daude.
- Eskaintzak aurkezteko epea: Premiazko tramitazioa denez, hamahiru egun naturalak, litzitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- Esleipen organoa: Ezkio-Itsasoko Udal Osoko Bilkura.
- Aurrekontuan kontsignazioa: Bai, Udal Osoko Bilkura honetan onartuko den Kreditu Aldaketa espedientean.

Hori horrela izanik, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Gaizka Perosterena Arregi arkitektoak idatzitako "Herri Eskola Proiektuko 1º Faseko Exekuzio Obra proiektua" onartzea, eta litzitazio prozedura abian jartzea aurkeztu den Ekonomiko-Administratibo Plegu zehatzaren arabera.

LAUGARREN PUNTUA:

1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEA.

Idazkari-kontuhartzaileak 2014/1 zenbakidun Kreditu Aldaketa espedientea aurkeztu du; adierazi du espediente honen helburu nagusia dela "Herri Eskola Proiektuko 1º Faseko Exkeuzio Obra proiektuko" lanen finantziazioa aurreikustea, eta halaber urtean zehar egon diren aurreikusi gabeko gastuei eta baita kontsignazio gabe dauden gastuei finantziazioa aurreikustea, azpimarratuz Gehikuntza finantziatzeko, dirusarrera berriak eta diruzainzaren gerakina erabiliko direla.

.....//.....

4-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENA :

2014/1 zenbakidun Kreditu Aldaketa espedientea behin-behineko izaeraz onartzea.

BIGARRENA:

Espedientea Legeak agintzen duenaren arabera jendaurreko erakustaldian jartzea, 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Erakustaldi epean erreklamazio edo alegaziorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe behin betiko izaeraz onartuta geratuko da. Azken hau jendaurreko erakustaldiko iragarkian onartaraziko da.

BOSGARREN PUNTUA:

2015 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALEN HASERAKO ONARPENA.

IKUSIRIK:

Ikusirik 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko, Ordenantza Fiskalen aldaketarako espedientea aurkeztu dela.

KONTUAN HARTUTA:

2015 urterako bakarrik zabor bilketaren zerbitzuaren tasa eguneratzen dela %10eko igoera aplikatuz, zerbitzuaren kostuaren gehikuntza finantzatzeko.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU:

LEHENENGOA:

.....//.....

5-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

2015. ekitaldirako Ordenantza Fiskalen aldaketarako espedienteari, behin-behineko onarpena ematea, era honetan :

MOTA	2015EKO TARIKA
ETXEKO ZABORRAK	112,07 EURO.
MERKATAL ZABORRAK	260,35 EURO.
INDUSTRI ZABORRAK	521,80 EURO.
MANDUBIKO BENTA	459,40 EURO.

BIGARRENA:

Espedientea jendaurreko erakustaldian jartzea, adieraziz iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan zerrendatutakoek, 30 laneguneko epea izango dutela, egokiak iruditzen zaizkien alegazio edo erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, espediente hau behin-betiko izaeraz onartuta geratuko da.

SEIGARREN PUNTUA:

AZAROAREN 25EAN "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA" DELA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA.

Aho batez onartu da , Beldur Barik ekimenaren eta Berdinsarea berdintasunaren aldeko euskal udalen sarearen barruan, Azaroaren 25a dela eta « Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna » ri buruz EUDELeK bidalitako adierazpen instituzionala osatzeko eredia ; honen bitartez Ezkio-Itsasoko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu :

- Beldur Barik programaren edukiak garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko modua lantzeko tresna gisa.
- Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko.
- Herritarrei gonbidatzea konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren

.....//.....

6-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.

- Gonbidatzea, bereziki neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, « Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

ZAZPIGARREN PUNTUA: IGARTZOLA PARAJEAN EGITEN ARI DEN BETELANAREN EGOERA.

IKUSIRIK:

Alkatetzaren 2011ko ekainaren 8ko R-11-68 Dekretuaren bidez, Igartzola-Berri S.L. enpresari baimena eman zitzaiola Igartzolako parajearen betelana egiteko. gutxi gorabehera 2.500.000 m³-raino, AHTren lanetatik sorturiko soberakinez, honako baldintza hauetan:

LEHENA:

Igartzola-Berri S.L. enpresari baimena ematea, AHTren lanetatik sorturiko soberakinez, betelana egin dezan Igartzolako parajearen, gutxi gorabehera 2.500.000 m³-raino [kopuru hau aparte da EIOZ (ICIO) likidatuta duen eta gauzatzeko zain dagoen kopurutik], honako baldintza hauetan:

- Proposatzen den epean (6 bat urte) betelanaren tamaina kontuan izanda, ezarri beharra dago R-09-087 Dekretuaren baimenean ezarri gabeko neurri zuzentzaile eta baldintza batzuk; neurri eta baldintza horiek udal-teknikarien, ETSren ordezkarien eta ustiategiaren jabearen artean adostu behar dira, inguruetan dauden herritarrei eta jardueri ahalik eta eragozpenik txikiak sortzeko moduan egin daitezela lanak. Neurri zuzentzaileak eta baldintzak hitzarturik eta ezarrita egon behar dute lanak hasi aurretik. **Lanak egin bitartean, horien edozein fasetan, Udalak ikusten badu ezarritako neurri zuzentzaileak eta baldintzak ez direla nahikoa, berriro deituko ditu lehen aipaturiko 3 alderdiak, eta neurri egokiak hartu beharko dira detektaturiko hutsuneak konpontzeko.**

.....//.....

7-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

- Igartzolako parajera iristeko Zozabarroko industrialdean jabetza publikoko bideetatik igaro beharra dagoenez, sarbide hori egokitzeko egin beharreko edozein lanek aurrez udal-baimena beharko du, eta bertan gerta daitezkeen kalteez erantzuteko, Ezkio-Itsasoko Udaletxean 56.675,00 eurorainoko abala utzi beharko da gordailuan. Baimendutako betetze-lanak bukatzean, bide hori egungo egoeran utzi beharko da berriro, eta eskakizun hori ez bada betetzen, Udalak egingo ditu bide hori lehengoratzeko lanak gordailuan utzitako abalaren kontura.

BIGARRENA:

EIOZen (ICIO) ordainketari dagokionez, baimen hau AHTren lanetatik sorturiko soberakinei buruzkoa izanik, Ezkio-Itsasoko Udalari ordaindu beharreko prezioa 0,08 eurokoa izango da M3 bakoitzeko eta KPIren arabera eguneratuko da urtero (prezio hau gaur egun ezarrita dagoenaren erdia da gutxi gorabehera); ordainketa hileroko egingo da, hilabete horretan egindako betetze-kopuruaren arabera, hileroko neurketa topografikoa aurkeztu beharko delarik botatuko lurraren egiaztagiri gisa.

HIRUGARRENA:

Lanak baimen honetan jasotako baldintzetan egiten direla zainduko duen pertsonaren edo pertsonen datuak eta harremanetarako telefonoak eman beharko zaizkio Ezkio-Itsasoko Udalari.

LAUGARRENA:

Baimen honetan ezarritako baldintza edo neurri zuzentzaileraren bat ez bada betetzen, edota EIOZ (ICIO) ez bada ezarritako eta hitzarturiko eran ordaintzen, Ezkio-Itsasoko Udalak betetze-lanak berehala geldiarazteko agindu dezake detektaturiko hutsuneak konpondu arte eta, hala balegokio, ordain dadila likidatu gabe dagoen EIOZ (ICIO).

BOSGARRENA:

Lizentzia honen titularrak, hemen jasotako guztiaz gain, segurtasun-neurrien arloko araudi eta ordenantza guztiak bete beharko ditu, baita ere

.....//.....

8-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren aipatu Ebazpenetan ezarritako baldintza guztiak ere, eta, behar izanez gero, bere erantzukizuna izango da udal-eremukoak ez diren beste administrazio batzuei beharrezkoak diren baimen guztiak eskatzea.

Alkatetzaren 2011ko uztailaren 5eko R-11-93 Dekretuz, kontuan izanda:

- 2011ko ekainaren 27an UTE EZKIOk idazkia aurkeztu zuela, lur-garraioko ibilgailuak Ezkio-Itsasoko Santa Lutzi-Zozabarro industrialdearen inguruko bideetatik igarotzeko baimena eskatuz.
- 2011ko ekainaren 30ean ETSek idazkia aurkeztu zuela Santa Lutzi-Zozabarro industrialde ingurutik ibili beharreko trafiko-trinkotasunera bideak egokitzeko egin beharreko ekintzak eta hartu beharreko neurri zuzentzaileak zehaztuz.
- 2011ko uztailaren 5ean UTE-EZKIOk 56.675 euroko abalak aurkeztu zituela bide publiko horretan eragin daitezkeen kalteak zuzen konponduko direla bermatzeko.

ETS eta UTE EZKIOri Santa Lutzi-Zozabarro industrialdeko udal-bideetatik ibilgailuak igarotzea baimendu zitzaizen, "Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria, Ezkio-Itsaso/Beasain zatia" obrako lur-soberakinak uzteko, baita ekintza eta neurri zuzentzaileak ETSren 2011ko ekainaren 30eko dokumentuan ezarritako eran egiteko ere, garbi utzita uneoro indarrean daudela Alkatetzaren 2011ko ekainaren 8ko R-11-68 Dekretuan jasotako baldintza guztiak, eta lanak baimen honetan jasotako baldintzetan egingo direla zainduko duen pertsonaren edo pertsonen datuak eta harremanetarako telefonoak eman behar zaizkiola Ezkio-Itsasoko Udalari.

KONTUAN IZANDA

2014ko maiatzaren 15ean UTE-EZKIOren idazkia sartu zela, non esaten baita "'Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria: Ezkio-Itsaso/Beasain zatiaren eraikuntza' lana bukatuta eta jabeak onartuta dagoela 2014ko otsailaren 3an, eta hedaduraz baita ere lur-erazketak eta hondakindegira egindako lur-eramateak ere", eta, beraz, 56.675,00 euroko abal guztiak itzultzea eskatzen zuela, nahiz eta eskari hori ukatu egin zitzaion Alkatetzaren 2014ko maiatzaren 26ko R-14-095 Ebazpenaren bidez, ez delako bukatu kamioien joan-etorria bide publikotik.

Igartzolako betelanari buruzko guztia sortzen ari den kezkaren aurrean, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio

.....//.....

9-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 105. artikulua herri-administrazioei baimentzen dienez kargak ezartzen dituzten edo aurkakoak diren egintzak edozein unetan baliogabetzea, berriro aztertu dela eskabide hori eta honako hau erabaki dela:

- UTE EZKIOk, kontrataturiko lanak bukatu eta onartu ondoren, ez du batere erantzukizunik Zozabarro industrialdeko bideetan eragin daitezkeen kalteei buruz, eta beraz erantzun egin behar zaio egindako eskaerari eta egiaztatu ea betelana egin duten bitartean kalterik sortu duten, hala balegokio, gordailaturiko abalak itzultzeko, horrek baliogabetzea suposatzen duelarik Alkatetzaren R-14-095 Dekretuaz onarturiko erabakia.
- Horrela bada, une hauetan ez dira betetzen aipaturiko Dekretuetan ezarritako baldintzak, ez baitago bermaturik Zozabarro industrialdeko bideetan egungo betelanak egiteko kamioien joan-etorriak eragin ditzakeen kalteak konponduko direnik; horren haritik esan behar da Alkatetzaren R-11-68 Dekretuaren 4. atalak hau dioela: **“Baimen honetan zuzentzeko ezarritako baldintza eta ekintzaren bat ez bada betetzen, edota EIOZ (ICIO) ez bada ezarritako eta hitzarturiko eran ordaintzen, Ezkio-Itsasoko Udalak betetze-lanak berehala geldiarazteko agindu dezake detektaturiko hutsuneak konpondu arte eta, hala balegokio, ordain dadila likidatu gabe dagoen EIOZ (ICIO)”**.

Bestalde, eta Alkatetzaren R-11-68 Dekretuaren lehenengo atalak hitzez hitz hauxe dioenez: **“Lanak egin bitartean, horien edozein fasetan, Udalak ikusten badu ezarritako neurri zuzentzaileak eta baldintzak ez direla nahikoa, berriro deituko ditu lehen aipaturiko 3 alderdiak, eta neurri egokiak hartu beharko dira detektaturiko hutsuneak konpontzeko”**, betetze-lanak egin eta udal-bideak erabiltzeko baimena indarrean dagoen 3 urte hauetan metaturiko eskarmentutik ondorioztatzen da ezarritako neurri zuzentzaileak ez direla nahikoa, eta neurri zuzentzaile berriak aztertu behar direla elkarrekin, betetze-lanak egiteko kamioien zirkulazioaren ondorioz Ezkio-Itsaso udalerriko herritarrak pairatzen ari diren eragozpen larriak minimizatzeko, arazo honi ere konponbidea aurkitu behar zaiolarik elkarrekin. Horregatik guztiagatik, eta bertaratu diren udalbatzako guztien aho-batasunez, Osoko Bilkurak honako hau onartu du:

A K O R D I O A:

.....//.....

10-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

LEHENA.- Aipaturiko arazoak konpontzen ez diren bitartean, Zozabarroko udal-bideen erabilera debekatzea Igartzolako lur-hondakindegira sartzeko.
BIGARRENA.- Erabaki honen edukiaren berri alderdi interesatuei ematea.

Beterik deialdiaren helburua, 20:00ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko azaroaren 17a

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....

11-0-14-02: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA